

## Birgit Ellinghaus

Nahiz eta « kasketa » frango badituen, Birgit Ellinghaus Unescoren aleman adarreko kulturaren nazio-batzordekide gisa mintzo da hemen.

Birgit-ek dio Unesco ez dela instituzio handi bat baizik eta aukera asko ematen dizkigun egitura bat.

Unescoren bi hitzarmen garrantzitsu aipatzen ditu : kultur ondare materiagabeari buruzko hitzarmena (2003), aniztasun kulturalari buruzkoa (2005).

Bi hitzarmenak hauek osagarriak direla dio, zendako ?

**2003ko hitzarmena** munduan zehar bali da. Eta ez da zerutik eroria : bi programa berezi aipatzen ditu Birgitek :

- **Ahozko eta materiagabeko goi-obren aldarrikapen programa (1997)**, munduko ohiduren identifikatzeko eta deskribitzeko lehen entsegu bat izan dena. Monumentuekin erabili ber lan metodoa aplikatu da : Asia, Pazifikoa, Europata Amerikako altxorrek edo goi-obrak hautatu eta zerrendatu.

-**Giza-aitxor bizen programa (Trésors Humains Vivants)**, kontinenteten zehar ahozko ohiduren zaintzaleak edo pertsonak identifikatzeko sortua.

Bi programa hauek bateratu dira 2003ko kultur ondare materiagabeari buruzko hitzarmenean eta honekin segitu da 2005 arte, praktika desberdinak (ahozkotasuna, ikusgarri bizidunak, jarrera sozialak-bestak-erritoak, naturari buruzko jakitateak, eskulanak) identifikatuz eta bi zerrenda berezietan emanaz : **urgentzian zaindu** behar direnak, **ondare materiagabe mota baten adierazgarri** direnak.

**2005ko kultura-aniztasunari buruzko hitzarmena** urrats garrantzitsua izan da, munduko sorkuntza garaikidea babesten baitu, giza eskubide estatusa baitu. Giza eskubide estatusa ukanez, kultura eta politika arloetan mekanismo batzuek eragiten ditu, ondoko printzipioetan besteak beste oinarritzen direnak :

- Autodeterminazio mugagabea kultura arloan,
- Kultura ekoizpenen eta zerbitzuen **izaite bikoitza** : **produktuak** dira eta ber denboran **nortasun baloreen hedatzaile**,
- Kultura politika baten eskubidea ,
- Gizartearen parte hartzea,
- Kultura ainiztasuna garapen iraunkorrean integratzea,
- kultura arloko informazio trukitzea.

Birgit Ellinghaus arabera, 2005ko hitzarmenak eztabaidari ate asko irekitzen dizkio (zer da kultur ondare immateriala, nola tratatu behar da) eta nolazpait 2003koaren berrikustera bortxatzen gaitu. Hitzarmen honi esker, gutiengoan musikek presentzia bat ukan dezakete toki “instituzionaletan”.

« Tradizioa, egia hutsa ? » - Sorkuntzaren erronkak Euskal Herrian  
2016ko ekainaren 3an – Baiona  
Euskal kultur erakundeak antolatu eztabaida – [www.eke.eus](http://www.eke.eus)

Birgitek berak eskubide hori aldarrikatzen du festibal antolatzaile edo kontzertu gela handien arduradunekin biltzen delarik: “ezin duzue egin musika espresabide horiek ez balire bezala”.

Suisako baleta ttipi bakoitzak duen “yodel”-aren adibidea (kantu teknika berezia, tiroliena ere deitua) hartzen du Birgit-ek. 2005eko hitzarmenak ainitz artista erakarri ditu “yodel” horren lantzea molde garaikidean. Orai, Alemanian ere, Yodel kontzertuak badituzte....